

“GAZTERIA BERRIA”REN KONTZEPTUA

JOXE AZURMENDI

AURKIBIDEA

Esnatze garratza	293
Desegin, birregin	295
Zalantzakor pentsamendua	296
Iheskeriarik ez	298
Kementsu ekintza	302
Ekintzan murgildu, politika egin	305
Rikardo “gazte berriaren” hiru aitortza	310

“Gazteria berria” ohiko espresio gatzil ia esanahi gabetsutat har liteke apika: gazteria beti izaten da berria. Baina 25 urte geroago Rikardo irakurrita, haren analisisetan erruz dabilen hizpide hori, kasi kontzeptu tekniko –apur bat polemiko– bezala dabilela, inpresioa ematen du. Are, hiztegiak dioen “gazteek osatzen duten multzoa” baino gehiago esanahi duela: 1. etapa berri bat historian, 2. izpiritu berria, kultur berriztea (bigarrentiarra izaki hori dena belaunaldi berriaren erreleboarekin batera jazotea). Lehenbizi Euskal Herriko historian, noski, baina orohar Europan edo munduan ere bai; “ezker berri”en pizte pluralean edonon ikus daitekeen moduan, esate baterako.

Gazteria berriak, garai berriak eta esperantza berria adierazten du (“esperantza errabiataua”). Gazteria berriaren kontzeptua ez dagokiola lehenburuan urteen arazoari garbi asko dago: “badira zaharrak eta zaharrak, eta badira gazteak eta gazteak. Zaharra edo gaztea ez da batez ere adin kontua, espiritua baizik” (HL 172)¹. Gehiago: estudianteen errebolta inspiratu duten eta eutsi duten intelektual gehienak aspaldi-gazteak dira; aitzitik, neska-mutil zaharkoteen koadroak izan dira, Alderdi ezkertiar tradizionalak erreboltatuon aurka mobilizatu dituztenak Parisen, alegatzen du Rikardok².

¹ Rikardoren idazkiak laburdura hauekin aipatuko dira: Pat = *Politikaren atarian*, Lur, Donostia 1969. RA = *Rikardo Arregi*, Jakin, Oñati 1971. HL = *Herriaren lekuko*, Jakin, Oñati 1972.

“Izan ere, herriaren alde lanean jarraitzen duenak beti baitu gazte arima; hori egitera-koan, gazteak bezala, gizartea ondu daitekeela, eraberritu eta alda daitekeela pentsatzen duelako, esperantza galdu ez duelako” (HL 205). Joanes XXIII.ari eta Kennedyri gazteak deritze, biok hil diren urtean: “Gazteak, etorkizunean itxaropen edukitzeagatik; bizitzea, mundu hau, maitatzeagatik; gizonaren ontasunean sinesteagatik” (Ib., 80).

² “Gaurko erreboltaren iturrian zaharrak ditugu gidari (esaera hau ez erabatean har, zeren erreboltatu horiek ez dute gidaririk nahi. Maotiarrek bakarrik dira Maorekin itsututa daudenak). Sartre, Marcuse, Mao, Russell, Lelio Basso, etab., ez ditugu hogeituro urteko muturzikinak. Eta Frantzian ezkertiar estudianteen kontra azpilana egin dutenak ez dira aitona zahar batzuek, komunista ortodoxoen estudiantee zintzoak baizik” (HL 172).

Mitologian “68ko maiatz” hori geratu da gerraondoko gazteriaren iraultza eta festazko eztanda loriatsua bezala. Haatik, historia errigortsurik egitera sartu gabe, gutako gehienok oraindik aisa gomuta ditza-kegu beste mugimendu literari, artistiko edo nolabait politiko edo sozial eragintsu batzuk aurreragotik, “gaztetasunaren” errebindikazioz edo “zaharren mundu” ezarriaren zaputzez. “Beat generation” mugimendu amerikarra, adibidez (“Beatnik”; ik. RA 103; HL 188, 190-191), San Francisco eta New York aldeko bohemia artistiko eta literaria 55-60 inguruan: edo “Angry young men” ingelesa, biak beharbada jatorri-sozialki ondo diferenteak, baina biak berdinak mundu “zaharraren” ukoan; eta horien kopia latinoak Hegoa Europan, “existentzialista” jantzita maizena horiek. Oso irudi sinplifikatu, baina, karikaturak izaten diren legez, grafiko batekin, gurasoek, esan liteke, krisi handiak eta gerra-ikarak ezagutu zituztenek, balio ziur eta frogatu sendoekin jaso nahi izan zuten mundua bere hondakinetatik; umeek muzin egin zioten balio “zahar” seguruekin eraikitako gurasoen mundu berri ekonomiko eta sozial tente-potente horri.

Euskal Herrian, Rikardok arbuiatzen duen “mundu zaharrak”, adiera konplexuagoa du hori baino, ikusiko dugunez: mendebale guztiko protestaren barruan kokatzen da nolanahi ere Euskal Herrikoa (Rikardorena, gureztat), bere partikularitasun propioekin. Hemen, izan ere, Francoren mundu zaharrari uko egiteak, gerra galdu zuten gurasoen munduari baiestea adinatsu zirudien ezinbestean; baina, kuriosoki, gurasoen munduari uko eginez, baietsi zaio egiaz haien kausari ere. Historia berria historia zaharraren aurka egin da; h. d., ez gurasoen jarraipena, zerbait berria egin nahi izan da ezer egitekotan. Belaunaldi horrek bere matxinadaren himnoa bezalatsu abestu du 60eko lehen urteetan Mixel Labegerieren “Gu gira Euskadiko gazteri berria” (69ko otsailean oraindik Rikardok gogoratzen eta beretzen duena!)³. Beraz, “gazte gera, gazte”, aurkeztuko du prentsako desafioan bere burua publikoari, eta belaunaldi honek badaki horrek esanahi duela: ez gaude konforme... Gogoratu beharra dago, “gaztea”k arrunt esanahi berezi hori hartzen zuela orduan; hots, kontzientzia matxinatu mundu-berri-gose bat espresatu nahi izaten zela berba horrekin, eraikita zegoenaren “egituren” aurka. Aipa ditzagun, bada, elementu batzuk, gazteria berriaren kontzeptu hori gaurko begietara ekartzen hasteko.

³ HL 297.

Esnatze garratza

Gazteria berriaren kontzeptuan hasiera berri baten kontzientzia espresatzen da, oldar hori 60 inguruan ikusiz. “Urte hori ezkeroztik, beharbada piska bat lehentxoagotik, euskal adimena eta euskal sentipena berritu egiten da, bere baitan zartada bat sentitzen du eta orduz geroztik gertaera hau, belaun berri baten esnatzea, kontuan hartu gabe ez dago aztertzerik ez euskal kultura, ez euskal politika, ezta ere euskaldunen artean dabilzan ideologiak. Hau da azken hamar urtetako gertaerarik bortitzena. Gure historia gertuenaren azalpenik ikusgarriena” (RA 70).

Berak horrela esaten –esaterik– ez badu ere, guk “ETA fenomenoa” izenarekin definienezake orokorki momentu hori, h. d., gazteriak abertzaletasun klasikoarekin hautsi eta bere buruaren identifikazio berri bila urte horien inguruan hasi duen gatazkarekin. Rikardok fenomeno horren barruan kokatzen dizu bere burua; eta datu horren gainean bakarrik analiza eta uler daitekeela uste du egungo euskal mundua. Ikus dezagun, bada, Rikardoren ikuspidea.

Dena lo, edo itota, zegoen, Francoren “25 urte Bake” handiaren azpian. Abertzaleak beren “betiko topikoen” linboan uzkur-uzkur; sozialista edo ezkertiarak siesta azkengabean gozo-gozo: “hemengo sozialismo tradizionala da lotan dagoena eta erabat burgestu dena” (RA 166). Guzti honekin Rikardok ez du ordura arteko bere lagunen, eta inoren, kondenarik adierazi nahi pertsonalki (1966-67an ari da bera hau dena idazten), soil-soil zer gertatu den gogoratu eta esplikatuz bai-zik⁴. “Euskal arazoen giro horretan sortu zen belaun berriaren euskal kontzientziaritzea. Esnatze eta kontzientziaritze garratza, euskal gauzen egoera nolakoa zen ikusirik, gazteen reazioa bestelakoa ezin zitekeelako izan” (Ib., 70).

Gauzak horrela, “belaun hau rebeldea, konformagaitza eta radikala izango da. Bere jatorria ikusirik, ezin zitekeen bestela izan” (Ib.).

Rikardo behin baino gehiagotan erreferitu zaio gurasoen mundutik egiatzko euskal errealitatera “esnatze” garratz honi; eta, aitortu beharra dago, gurasoenganako nahiko gozogabe egin ohi du, bestelakorik ez esateko.

⁴ “Beharbada ezin zitekeen besterik egin. Egoera hori ez zen kasikan euskaltzaileen errua; beharbada hauek ez zuten hainbeste eta hain azkar etsi behar eta besteengandik salbazioaren zai gelditu. Baina nor gera gu hori aztertzeko eta neurtzeko? Ez ditzagun, beraz, lehengo belaunaren gain juizioak egin” (RA 70). “Besteengandik salbazioaren zai” gelditzerik ez daukagulako hori, errepika bat bilakatu da gero Rikardoren luman.

“Ez dut masokista izateko premiarik euskal belaun gazteak pentsamenduan izan dugun buruhaustearen bortiztasuna nolako izan den esateko. Aurrekoengandik pentsamolde estuak, aspalditiko eta desegokiak jaso ditugu. Gizonaren bizitza, historia, molde berrietan sartzen zihuan bitartean, eman ziguten pentsamoldea lozorroan zegoen. Pentsamolde hau [uztea?] lehendabizi soinekoa aldatzeko asmotan hasi zen. Baina hori ez zen nahikoa. Gero eta galdera ugariago eta zorrotzagoak genituen gure barruan, gero eta erantzun argiago eta sakonagoak eskatzen genituen. Alferrik. Lehengo belaunaren gidariak, gizonak, pentsalariak, ez ziren gureak. Beharbada denboraren poderioan galderak ere diferenteak izatera iritsi ziren. Erakuslerik ezean maisu gabeko ikasle bihurtu ginen. Hamaika liburu nahasian irakurri ditugu. Hasieran gure aurrerapidea Ortegaraino iristen zen, azkenean Marx eta Sartregandik pasa gara” (HL 306).

Zer egin?, “gure belauna beharbada galdera honekin estututa bizi da. Antsiaturik bere buruari galdegiten dio: sentidurik ba al du gaur euskaldun izateak?” (Ib., 327). Francoren aurka “oposizioan egotea”, h. d., irautea, pribatuki eta intimoki sendo, beharbada positiboa da eta balio du batek norbere golkoan beti kontzientzia ona edukitzeko harro-harro: eraman ez darama inora, kanposantura baino. Etxetik kanpora orduko euskaldun gaztea –eskolan, kantuan, dantzan, Unibertsitatean– euskalduna izaterik eta euskaldun bezala bere burua egikaritzetik ez daukan munduan aurkitzen da. Euskalduna izateak sentidorik izateko kalean, euskaldunak hor sentido bat daukan mundua behar; baina mundu hori aurrena euskaldunak berak egiten ez badu, ez da inoiz egongo. Orduan, ala zerbait egin egiten da azpiratzen gaituen mundu ofizial hau aldarazteko, ala euskaldun izateak ez dauka sentidorik “iraute hutsean” (RA 70). Zertarako euskaldun?, saihestezina bilakatu da orduan galdegitea, egia bada ere –gehitzen du Rikardok–, galdera hori egiteko modu desegokiak badaudela gero. “Neronek ere nere baitan horrelako mila kezka izan ditut. Lehen aipatu dugun desegokitasun hori, bizitzaren molde ofizial eta molde bizien artean dagoena, eten gabeko garraztasunak sortu dizkit. Molde ofizialetan sartzeko resistenzian hezi nindutelako, beti kontra eginaz bezala bizi izan naiz. Desegokitasun honetaz konturatzeko moduan aurkitu naiz, gero eta hobeto ikusi baldin badut ere, desegokitasun hori zertan dagoen. Badi-rudi gizarte guztia nere izaeraren kontra jaso zegoela. Bazirudien, eta orain ere bai askotan, nerea sentidurik gabeko egoskortasun bat besterik ez zela, gizarteak ezarritako molde ofizialak zirela arrazoidunak eta ni nintzela oker nengoena” (HL 327).

Desegin, birregin

Itzartu eta belaun berriaren lehenbiziko zeregina “topikoak desegin beharra” izan da. Pentsamendua birregin, praxi berri bat abiatzeko. “Euskal arazoan gaitza euskal pentsamenduaren eskolastizismoan zegoen. Eskolastizismoa esaterakoan, hau adierazi nahi dut: repetizio bat besterik ez zela. Gauzak, arazoak, problemak berpentsatu behar- rean, berresan. Betiko topikoetan sinestatzen jarraitu” (Ib., 70-71). Eskolastizismoaren eta betiko topikoen gurpilaren kritika hau ere, Rikardok ezker edo sozialismo klasikoari, abertzaletasun zaharrari bezalaxe egiten dio (HL 172), biei kritika berdina berriro. Iragan zahar batean ainguratuta geratu dira biak.

Esnatze horren garratzak (“heriotza gero eta gertuago konturatzen denaren esnatzea baita”) nahitaez borrokalaria eta, bere asmoetan behinpehin, erradikala bihurtu du gaztea.

“Orduan galdera bat eta gertakizun bat azaltzen zaizkio. Gal- dera hau da: ZERGATIK EZ DA BORROKALARIA EUSKALTZA- LETASUNA? Eta euskal gazteak erantzun hau emango du: bur- gesa eta kontserbadorea delako. Gertakizuna, berriz, hau da: gaurko gure gizartean borrokalarienak langileak dira, edo, hobeto esateko, LANGILERIK GABE EZ DAGO BORROKA EGI- TERIK, batez ere industrializatutako gizartea den Euskal Herrian ez dago ezer egiterik soziala gabe.

Galdera edo erantzun horretatik eta konstatazio horretatik jaioko dira urte hauetako euskal belaun gaztearen pentsamen- duaren bi ezaugarri handienak: (1) radikaltasuna eta (2) sozialis- moa” (RA 71).

Erradikaltasunak (1) hemen euskaltasunari begiratzen dio eta eus- kalduntasuna bera seriotan hartzea nahi du esan. Hau da, hiltzorikoa bada gaurko egoera, gaurko egoera horren zergatia seriotan bilatzea historian. Aurkitzea esplikazio berri bat betiko topikoak baino. “Euskal pentsamendua burgestua eta eskolastikatua zegoela esan dugu, topi- koetan finkatua. Hori ez onartzerakoan, topikoak desegitea, historia- ren iturrietara joatea, euskal historia eta euskal arazoak hasiera hasie- ratik eta huts hutsetik estudiatu eta pentsatu beharra azalduko da. Horretan egongo da radikal izatea, huts hutsetik berriro iturrietara joate horretan, euskal historia berriro pentsatze horretan” (Ib.). Biga- rren ezaugarria, sozialismoa (2), belaunaldi hau poliki-poliki mamituz joango dena da, sozialismo “esentzialista” primitibo samar batetik hasi eta, beharbada dogmatismoren batzuetatik paseaz, ezker berriko pos-

tura kritiko eta iraultzaileak asumitzeraino, prozesu korapilatsu batean (ik. “Sozialismoa modan dago” saio osoa). Rikardok duda izpirik uzten ez duena, ezkerrean tinkatu beharra da, ez dago beste aukerarik, euskal arazoari irtenbiderik aurkitzeko: “JEL hil bedi”, “gure salbazioa ezkerrean!” (HL 305).

Pentsamenduaren desegite/birregite honetan kapitulu mingots bat erlijioarena izango da; edo, belaunaldi honi Euskal Herrian aurkeztu zaion eran, fedearena eta marxismoarena. Arazoa zabala da, Txillardegik salatzen zuen seminarista ohi guztien marxista bilakatze omen fenomenotik, Herri Gaztedi, JOC, etab., langile kristauen eremuetaraino. “Euskal gazteria fedea galtzen ari omen da. Nik, hori, pozgarria dela esan daitekeela uste dut”, erantzun du Rikardok (RA 114-115). Gaia Rikardoren izkribu sonatuenetako batena izan da bere garaian eta hemen ez dugu sakonduko (“Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu”). Bakarrik esan, Rikardorentzat “amairik gabeko bere fedearen egunera-tzean, berpentsatzean, berbizitzean” datzala fededunaren konpromezua. Honek, negatiboki, “euskaltzaleen Jainkoa hiltzea” eskatzen dio gaur gazte euskaldun kritikoari: “Gizatasunarentzat, gizonaren liberazioarentzat, zaleturik borrokan gabiltzan kristauontzat Jainko hori idolu bat delako. Gizonaren liberazioarentzat kate eta eragozpen bat” (Ib., 115). Positiboki, bere barruan garbitzea eta irekitzea, eta –adibidez– marxistekin elkarrizketatzeko prest egotea, dogmatismo eta harrokeria gabe.

Rikardoren birpentsaketa erlijiosoa ez da gure gaia. Haren aitortza bat aipa genezake, halere, bere gogoeta kritikoarekin beti ez zela eroso-eroso aurkitu erakusten baitigu fedelagunen artean: “Askotan bide jakinetatik atera nahi dugunok, ezinegon ugari batean bizi nahi dugunok, arrotz bezala egiten gara katolikoan artean eta ez zaigu hori hain erraz barkatzen” (RA 82).

Zalantzakor pentsamendua

Gazteria berriak, berritasunaz gain –eta beharbada horrek xokatu egiten du– gaztetasunaren bindikazioa esangura du: oraindik mundua eskuan ez edukitzeko eskubidea, dena ez jakiteko, soluzioak “garbi” ez edukitzeko eta hanka sartzeko eskubidea, piska bat lotsagabea ere izateko eskubidea.

Baina izpiritu berria hain zuzen kontzientzia horixe da: mundu bat galdu dela eta berria oraindik ez azaldu. Ezaguarazten zuten gauzetako bat, ordea, mundu urperatu hark, horixe zuen: bere segurantzia ugarriak, borobilak, haustezinak, eternalak. Batere hautsi gabe joan direnak

joan ere ahazpen santu isilera. Hemen gaude orain: “burua galderaz betea dugu eta galdera horiei geurok bakarrik aurkitu beharko diegu erantzuna” (HL 279). “Lehenagokoen zenbait ideia eta pentsamenduk ez digu balio eta, oraindik, horien ordezeko gure-gureak ez ditugu aurkitu. Honela ikusten gaituzte askotan, desorientaturik eta aldakor...” (Ib., 206).

Gaztetasun hau bilaketako izpiritua da, “bide berrien bila dabilen gazteriaren” argonauta izpiritua (RA 89). Gazteon buruan dena da galderak eta galderak, gauzarik elementalenetik hasita: “Zer da euskaldun izatea? Zergatik euskaldun izaten jarraitu? Zer egiten du euskarak gure gaurko problematikan? Zer da euskaldun jatorra izatea? Nola behar dugu izan euskaldun?... Nork uka lezake nik orain aipatutako galdera hauek gure giroan daudenik?” (Ib., 171). Rikardok ahalegiten du erantzunen bat asmatzen, baina: “Nik, egia esan, galderatik gehiago daukat erantzunetik baino” (Ib., 192). Makina bat holako itaun badabil haren saioretan: zer da sozialismoa? (Ib., 82), zer da ezkerria? (88 ss, 95, 97), zer da agintea? (Pat 49 ss), zer da Estadua? (Ib., 55 ss)...

Egien ziurtasuna ez da izaten egiena, haien jabeen izpirituen baidzik. Alta izpiritua bera etorkizun ezezagunerantz erromes kausitzen delarik, handiak dira, ezohiko baso bideetan, gogoeta kritikoaren arriskuak, eta halakoxea onartu beharko zaio buruari –apaltasun forma bat izan daiteke hori– ausardia eta lotsagebetasuna⁵. Orduan soluzioak garbi edukitzea ez da obligazioa: zalantza da orduan legea eta etsigabeko bilaketa, ekibokatzeko arriskuarekin⁶ hurbilketa, problemak problema bezala ezagutuz. Nola bildu sintesi egoki batean norbanakoaren interesak eta kolektiboak? Nola batu nazio arazoa eta klase arazoa? Nola izan “abertzale” eta ez jausi “nazionalismoan”?⁷... Rikardok bere proposapena dauka, bere ustea edo ametsa. “Zaila, ilun samarra, gaur-

⁵ “Ondorenean datozen lerroak egiaren bila egiten saiatu naizen hurbiltze bat besterik ez dira (...). Ausardiarekin egina, dudarik gabe (...). Nere pentsamenduak, eskasak noski, argitaratu –eta horregatik oker jokatzea arriskatu– edo nere baitan gorde hobetoago sendotu bitartean, da azaltzen zaidan aukera. Dudarik gabe, arrisku guztiekin, lehendabizikoa aukeratzeko dut” (RA 115). “Eskarmenturik ezak ematen duen ausardia handi batek bakarrik egin du posible lerro aldrebes eta nahastu hauek idatziak izatea. Baina baita ere esasperazioak” (Ib., 129).

⁶ “Nere lanak berriro irakurri ditut. Puntu batzuetan iritzia zuzena ez zela ikusi dut. Ez naiz harritzen. Zenbaitetan ez dudala asmatuko edo ondo jokatuko? Jakinaren gainean nago. Badakit arrisku horretan sartzen naizela. Bainan arrisku hori korritzeko obligazioa dudala uste dut” (HL 122-123).

⁷ Ikusiko dugu hau ez dela Rikardoren terminologia: harentzat abertzaletasuna eta nazionalismoa berdin da.

koz ametsa? Dударik gabe. Gizona eta gizonaren gauzak hain sinpleak ez direla dakigunez, bide zabalegiak eta errazegiak mesfidantza handia sortu behar lukete gudan” (HL 160). Izan ere, ulertzen diogu guk gaur: mundu honetan soluzioak ez baitira eduki egiten, baizik egin.

Nolanahiko hutsegiteen aitortzak Rikardoren obran behin eta berriro aurkitzen dira: “tentazio hau izugarrikoa dela badakit. Neroni ere askotan erori naiz bere horretan” (HL 167); “honetan nere errua konfesatu beharrean aurkitzen naiz” (Ib., 279); “astakeria bat baino gehiago idatzi izatea, baliteke; izan bedi nere gaztetasuna barkaziorako motibo” (Ib., 204-205), etab. Enetzat polit-polita, erakusgarria, hil zenean idazteko asmoa zerabilen liburu bateko hasiera hauxe da, Rikardoren izpiritua borrokan ikusteko bere buruarekin: “Liburu hau idazteko asmoa banuen. Liburu hau ez nuen idatzi nahi. Liburu hau berriro idazteko asmoa dut, beharbada ez dut gehiago idatziko. Kontradikzioan jaioa da eta ez du bere horretatik ihes egiteko asmorik. Orain arte euskal arazoei buruz nere buruan dantzan ibili diren pentsamenduak, asmoak, sentipenak eta intuizioak nerontzat agirian jarri nahi izan ditut, hori da nere liburua” (Ib., 306).

Hori zen funtsezkoa: “kontradikzioan jaioa”. Hori da Rikardo. (Hori belaualdi hau, gazteria berria). Baina hori gizona bera da funtsean: kontradikzioak osatzen du bere muin-muinean giza izaera (Ib., 310), eta kontradikzioa da bizitza bera (RA 90). Pentsamenduak bizitza izan behar du (Rikardok batzuetan “dialektika” esaten du).

Iheskeriarik ez

Ezin jasan zuen eskolastizismoa, dogmatismoaren bixkia. (Baina “eskolastikatuta” aurkitzen zituen bai sozialismoa eta bai abertzaletasuna). Pentsamendua norberak pentsatzen duena da. Bestek pentsatua errepikatzea gehienez ere memoria izango da. “Progresistek” egina bada hori, askotan izaten den bezala, mugimenduaren izenean praktikaturiko geldiegona edukiko dugu, bizitzaren eta gogoeta “zientifikoaren” lekuan (HL 166 eta hur.).

Alderdiekin eta erakundeekin antza oso gutxi lotu nahi duen holako pentsamendu gazteberritar baten arriskua iheskeria izan liteke ideietara edo idealetara zerugoietan. Ondotxo akordatuta zegoen bera horrekin eta –haren ideien eboluzioa aparte– hortik dator Rikardoren kazetaritzan pentsamendua, sigisagan bezala, sugearen modura aurretatzea, behin esana hurrengoan korigituz, osatuz, argituz, ukatuz eta berrituz, tinkatuz. Nahikoa da bere kazetaritzaren aldian gai nagusi-
txoak izan zirenen batzuk arakatzea, Europa adibidez.

Rikardo klabe ezberdinetan irakurri beharra dago. Europa erreferentzia guztiz positiboa da (beti), euskal kulturaren gaian badihardugu. “Gure pentsakera, gure izakera, geure nortasuna galdu gabe, Europaren ordura jarri behar ditugu” (HL 349). Gure erlojua atzeratua doala eta euskal kulturak Europako orduaren (edo, trenaren, etc.) parean ipini beharra daukala, inoiz ez da aspertuko aldarrikatzen. Baina bere europeismorik arraienean ere (1964) Rikardok ez dio oniritzen edozein Europari. Berak formulatzen duen eran, “guk nahi behar dugun Europak” ez dauka nolanahikoa izaterik: “Herrien eta pertsonaren Europa izan behar du”, ez kapitalisten eta trust handien, eta Estatu zaharrena (Ib., 248-249). Batasunak bultzada ekonomiko ikaragarria eragin duela, positiboki baloratzen du, nahiz baina batzuekin izan (Ib., 257-259); baina bainago, ordea, bultzada horretatik Iparraldearentzat soluzioa espero dutenek, beren buruak engainatzen dituzte Rikardoren ustez. Politika eta ekonomia ez dira berdindu behar⁸. Ekonomikoki abantailaren batzuk ekar balitzake ere, eta ez zaio iruditzen batere ziurra hori bera⁹, politikoki ez dago handik soluziorik (euskara, etab.) zergatik itxaron gauzak asko aldatzen ez diren artean (Ib., 254-255). Horrela Europako lilura, Europako itxaropena (“Elkarrekiko Merkaturia izango dela euskaldunen arazoa konpontzeko unerik egokiena eta onena euskaldun askok dioten gauza da” idatzi du, seguruenik momentu horretako EAJ-PNVren mezuei Francoren aurka begira)¹⁰, geure buruon engainu berri bat bihurtzen zaigu: “ezin dezaket buka, europeismoa guretzat eskapismoa izan daitekeela esan gabe. Europa denontzat itxaropen bat da, baina gure gaitzak Europari begira egonda ez dira sendatuko. Ez dezagun pentsa, hemen konpondu behar direnak, kanpora begira egonik konponduko direnik” (Ib., 345)¹¹. Iheskeriaren salaketa hori denborarekin indartu egingo da: “Guretzat, gure problema konpondu nahian Europa eskapismo bat izaten da gehienetan. Europa «dena» balitz bezala hartzen baitugu, gure problemak Europaren barruan konponduko direlakoan” (Ib., 251)¹².

⁸ Ik. LH 258 ere.

⁹ “Ez dugu ahaztu behar Europaren izenean nolako tranpak egiten dizkiguten. Europaren batasuna diruak egin du, kapitalak eta kapitalistak bakarrik iritsi dira batasun eta elkartasun horretara (...). Eta dirua, irabazten den tokira doa (...). Horrelako Europa batean alderdi behartsuen problemak konponduko direla sinestea, horixe besterik ez da” (HL 255).

¹⁰ Ib.

¹¹ 1965eko uztaillekoa. Rikardoren pentsamendu eboluzioa segitzeko interesgarria da Europarekiko haren posturari jarraitzea.

¹² 1966ko urtarrilekoa.

Arazorik pasionagarriena, ezkertiar batentzat areago, “bakoitzak berea bezala sentitzen zuelako” Rikardoren esanean, Vietnamgo gerra izan da urte haietan (batez ere 64-73, “fase amerikanoa”), herri pobre zaildu batek arrakastaz eutsi duen gerra sineskaitza munduko potentzia handienaren eraso inperialistari bere medio gaiztoenekin. Vietnamgo herriaren exenpluak mantentzen du esperantza, idatzi du Rikardok (Ib., 231). Beraz, hemen ere behin eta berriro iheskeriaren arriskuaz abertitzen badu, ez da Vietnamgo herriaren borrokaren esanahiaz inperialismoaren eta sozialismoaren geroarentzat osoki ohartun etzelako bera. Halere, uste dut, Rikardok Vietnami buruz idatzi duen gutzia errepasatu eta, idazkiotan gehiena azaltzen den ideia iheskeriaren arriskuarena dela berriro. “Sozialismoarentzat, eta inperialismoarentzat ere bai, noski, vietnamdarrek, amerikanoen agresioaren kontra daramaten gerlak berebiziko garrantzia du. Gerla galdu edo irabaztea edo, zehatzago mintzatzeko eta gerla genozidio hutsean bukatzen ez bada, gerla hobeto edo okerrago bukatzea sozialismogintzarako atzerapen edo aurrerapen ikaragarria izan daiteke. Horregatik esan daiteke gerla hau gurea dela, gure izenean dabilzala. Baina vietnamdar gerrileroak ez dira gure enkargu betetzailerik batzuk. Eta puntu hau kontsideratzea oso inportantea da, zenbaitek gerla honekin jolasean ibiltzeko izugarritzko arriskua dugulako. Vietnamen egiten ari diren gaiztakeriak, gure aldetik deadar eta protesta guztiak behar ditu. Baina honek guretzat arrisku izugarri bat du. Vietnamgo gerlak irauten duen bitartean, amerikanoek beren genozidioa aurrera daramaten bitartean, badugu nahiko arrazoi eskandalizaturik gure soinekoak urratu eta protesta beroena egiteko. Hori, ordea, ahalezinaren seinalea izan daiteke, erromantizismo sinpleena osatzeko modurik egokiena. Eta Vietnamgo gerla sozialismogintzaren borroka frontierik inportanteena da, baina ez fronte bakarra. Hangoen heroismoaz miresturik gure kontzientzia trankil dezakegu, hangoen heroismoarekin bizi gintezke, ilusioan behinipehin. Erromantizismoa ase nahi izateak ahalezinean uzten gaitu” (Ib., 111). Jende oso iraultzaile batek, izan ere, *haien* borrokarekin egiten du *bere* iraultza. Holakoei, borrokazale erradikalenak berak izaten dira, etzaizkie negoziazioa eta bakea, eta sofri-menduen azkena, komenigarriak iruditzen, “orduak garraisi egiteko arrazoi ikusgarrienik gabe gelditzeko arriskua izango luketelako” (Ib., 111-112). Mendebalदारrok Hirugarren Munduko jabe egiteko modu berri bat genuke hori, inperialismo subtil bat: haiek egin dezatela, guk behar dugun borroka!... Vietnamekin solidari izateko modu zintzoa, osteratzen du Rikardok, haien borroka guk hemen egitea da: inperialismoaren aurka eta sozialismoaren alde. “Okzidenteko gizarte aurreratu

edo aurreratu samarretan bizi garenontzat politikagintzak problema sakon eta garratzak presentatzen dizkigu. Politikagintza hori ez da batere erromantikoa, hemeretzigarren gizaldiko edo, gure iritzian, hirugarren mundukoa izan daitekeen bezalakoa. Subjetibismoa, zoritxarrez, ugariegi zabaldua dago ezkertiar izan nahi dutenen artean” (Ib., 112).

1968an, ia 600.000 soldadu amerikano zuzenean gerran parte hartzeri pasa denean, triskantza ikaragarriekin (napalm)¹³, eta protestak altxatu direnean mundu guztian, urtarrian, otsailean, martxoan, hilero idazten du Rikardok. “Zoritxarrez Vietnam da beti berrilarentzat beren artikuluetarako gai. Topiko bat bihurtu da. Jendearen sentimentu onak bizteko, gaitzaren eta inperialismoaren egiteagatik soinekoak urratzeko gai hoberik ez” (Ib., 281). Eta ez da zer gabekoa, ja urtarriekoak “Vietnam, iheskeria bat?” baderitzo izenburuan. “Pentsatzen hasia naiz –dio– Vietnamgo gudatea ez ote den Europako zenbait ezkertiar gazte eta aurrelarientzat ihes egiteko modurik egokiena eta ederrena” (Ib.)¹⁴. Vietnamgo borroka beroa da. Hango borroka armekin da. Handiaren gerra txikiari, indartsuaren basakeria ahularekin: justiziaren egarri tintarik duen edonor asaldatzen da. Han gertatzen direnekin bero-bero jartzen gara eta amerikanoek egiten ari direnekin sututa gelditzen gara... Borroka bera, ordea, hemen hotza da eta aspergarri egunerokoa, entusiasmo gutxi pizten du. “Mundu guztian dugun eginbeharra –aldarrikatzen du aspergabe Rikardok– berdina da: gizon izateko eskubidea irabazi. Bakoitzak, ordea, bere giro konkretuan egin behar duena da” (Ib., 282)¹⁵.

¹³ Atentzioa egiten du, eta Vietnamgo gerraren inpresioa isladatzen du zalantza gabe, Rikardok proiektatzen zuen dibulgazio bibliotekarako liburu-gai bat napalmaren azalpena zela. Nolanahi ere Bigarren Mundu Gerran jada erabiliak zituzten amerikanoek napalm-bonbak Asiako Gerran, eta Koreakoan ere gero. Egia, halere, eskandalo handia eta mundu guztian protestak, Vietnamgo horroreak eragin dituela.

¹⁴ “Europako ezkertiar gazteentzat hirugarren munduko erreboluziogileek izugarritzko fasziazio bat dute. Eta horretantxe dago arriskua. Dударik gabe, guk ere borroka hori geurea bezala sentitu behar dugu. Herri aberatsetan bizi direnek ezin dezakete behinere ahaztu, gauzak aldatzen ez baditugu, herri aberatsak gero eta aberatsagoak direla eta, proportzioan, pobreak gero eta pobreagoak. Errealitate horrek, ordea, ezin dezake ahaztu erazi geure borrokaren premia. - Vietnamdarrek darabilten borroka gurea dela, ez dago ukatzerik. Tontakeria litzateke, ordea, horretan dagoela guztia sinestea. Eta bildurra dut hori ez ote den ari gertatzen. Horregatik izan daiteke iheskeria bat guretzat, gure eginbeharrarentzat Vietnamgo gerla. Gure jokabidea ez da hain erromantikoa, askozaz ere xeheagoa da. Horretan ikusi behar dugu gure sinpatiak erromantizismo hutsean finkatzen diren edo beste zerbait gehiagotan” (HL 281-282).

¹⁵ Ik. ideia berberen hisiarena iheskeriaren salaketan otsailean halaber (HL 346-347), eta berdin martxoan (HL 110-112).

Errealismoaren itxura Alderdi batean edo erakunde batean sartuta salbatzen da hobekiena. Baina Rikardok Alderdi eta erakunde (historiko) horiei uko eginez salbatu behar zuen errealismoa. Horien aurkako posizio batetik. Berak orduantxe han-hemen jaiotzen ikusten zuen posizio batetik (ordukoz behintzat Alderdirik edo erakunde definiturik gabe). Horregatik, ulertzen jakin behar da, komunista ortodoxoenak edo prentsa burges burgesenak beren “errealismoaren gaztelu menpezin”etatik dogmakoiki aira zitzaketen iritzi berdinsuak, Rikardori irakurtzen badizkiogu noizean behin. Hala gertatzen da bere azkene-koetako artikulu batekin, Leninismoa auzitan jarriz batera, “ezkerrismoa” erasiatzen duenean orobat. Hor ezker berriarentzat iheskeriaren posibilitatea¹⁶ mendebaleko castrismoan eta troskismoan bertan susmatzen da. Salaketa hori hainbat esanahitsuagotzat hartu behar dugu, non-eta Rikardok ezker berri horretakoxea aitortu baitu pertsonalki bere burua, eta ezker berri horren iturri eta ernarazletzat hain zuzen castrismoa zein troskismoa dauzka besteak beste. Zergatik dute castrismoak eta guevarismoak Europako gazterian halako erakarmena? Zer ikasten dugu, ikasi (miresmena erraz geratzen da amets hutsean), eta nora garamatza lezio horrek? Bere azken hilabeteetako kezka handi bat zuen hau zalantza gabe, berriro “Castrismoa, ihesbidea?” izenburuak erakusten digunez. “Ez dago dudarik –konkluditzen zuen betiko antzera– castrismoa mendebaleko europarrontzat iheskeria bat izan daitekeela. Amets egitea eta irudimena izatea derrigorrezkoak dira erreboluzioa egiteko, zenbaitek uste duenaren kontra. Amets eta irudimen horiek, ordea, errealitatea eraberritzeko medioen zerbitzuan ez baldin badaude, hitzez kondentatzen duten errealitate berbera sendotzen dute” (Ib., 299).

Kementsu ekintza

Kontua da errealismoak ez duela esan nahi gauza bera, eta iheskeriaren salaketak ere orduan ez duela signifikazio berdina komunista ortodoxo edo burges horientzat eta Rikardorentzat. Rikardoren errealismoa etikoa da. Prestutasuna galdatzen du, ez derrigorrik efikazia.

Rikardoren kazetaritza aldiko beste gorabera zeresantsu bat Txekoslovakiaiko Udaberria eta tropa sobietarren inbasioa izan zen. Protesta bezala Ian Palach estudianteak su eman eta erre egin zuen bere burua

¹⁶ “Posibilitatea badela besterik ez dut esaten, ez benetan eta derrigorrean beti izan daitekeenik” (HL 174).

Pragan. Alfer-alferrikako ekintza bat itxura guztiz... "Politikagintzan bere burua zientifikotzat dutenek, gisa horretako ekintzak moralismoztat dauzkate. Eta horregatik kondenatu egiten dituzte (eta mesprezatu ere bai)". Politikan zientifikoa eta errealista izan behar da. Ez dago moralismo eta sentimendu burgestipi subjektiboei jaramon egiten ibiltzerik. Hona hemen Rikardok, amorruez eta tristuraz: "Nik Ian Palach «abenturista», «burgestipi», etab., eta Husak¹⁷, Eslobakiako Alderdi Komunistaren sekretario zital, «realista» eta abarren artean aukera egiteko batere dudarik ez dut" (Ib., 296-297).

Iheskeriaren kritikak nabarmentzen duena, hortaz, batez ere kontzientziako errealismoa da. Zinezkotasuna. Pentsatzen denarekin moralki kontsekuente jokatzeko ekintzan, esigitzen du, jokatzeko batik bat eta zikintzea, egitea, pentsamendu puruaren eta iraultza perfektuaren ilartargitan hegalarari atsegindu barik: idealei praxian entregatzea norbera lur-lurrean.

Ekintzara eta konpromezura deia da. Beharbada Rikardok pentsamendu eta gazteria berriaren aldeko apustuagatik beragatik eragon beharragoa zeukana, pentsamendu eta protesta hutsetan gera etzedin; edo Alderdi, erakunde, pentsamendu zaharren ukoan eta zalapartan soil, errebolta puruan, Cohn-Benditek jaulki omen zuen moduan 68ko maiatzean¹⁸. Errebolta ongi dago eta beharrezkoa da mendebaleko demokrazietan "beste edozein diktadura baino gogorragoa den giro bat: konformismoa" astintzeko (Ib., 188). Hein horretan «beatnik» amerikanoak¹⁹, biziera amerikano topikoaren lorrinketarekin, txalogarriak dira. Baina "ez da nahikoa konforme ez egotea, beharrezkoa da deskonformidade hori zerbaitetaz betetzea, nolabaiteko mamia izatea" (Ib., 189). Eta ez da nahikoa manifestaldietara joatea Vietnamgo bonbardaketen aurka: "gertaeren sustraira, oinarriara, joanez gero sistema guztia epaitu beharrean aurkituko dira" (Ib.). Bestela errebeldia snobismo eta

¹⁷ Gustav Husak, politikoa eslobakiarra: 1945etik aurrera goreneko karguetan Alderdian hala Gobernuan, 50.eko urteetan atxilotua eta bizi osorako preso kondenatua "nazionalista eslobakiar burgesa" izateaz salatua; inbasioaren ondoren sobietarren eskumakila, Alderdi Komunistako Lehen Idazkari eta Txekoslobakiako Lehendakari izendatua.

¹⁸ "Badirudi benetako erreboluziogileen eginkizuna eten gabe errealtateak astintzea dela..." (HL 114). Osteratzen du Rikardok: "Erreboluziogintzan dabilenak badu zerbait ahaztu ezin dezakeena: benetako erreboluzioa ez dela egiten, agintea eskuratzen ez den bitartean eta horrela sistema berri bat jasotzen hasten ez den bitartean" (115).

¹⁹ Ik. HL 190-191. "Ile luze, garbitasun guti, arropa narrats, modan daudela beatnik hauek ez dago ukatzerik. Frantziatik bidali egiten dituzte nahiko dirurik ez baldin badute. Hemendik ere bidaltzen hasiak dira" (1966ko ekaina).

moda, eta konformismoaren aliatu hoberena bilaka daiteke erraz asko²⁰. Eta hau beharbada gazteria berriaren protesta modu gehienetara zabal daitekeena da: “Horregatik da arriskuzkoa edozein radikalizazio politikan. Radikalizazioa, estremismoa, mamirik gabe, dotrinarik gabe, ideologiarik gabe, programatik kanpo, hitz hutsetan gelditzen den demagogia bat besterik ez da. Aidean gelditzen da radikalizazio hori, aidean edo snobismo huts batean” (Ib., 191).

Gertakari eta problema batzuen aurrean errazegia da indignazioz betetzea eta garraisika protesta egitea. “Denek nahi dute beltz eta zurien artean bakea iritsi dadila, pobreziaren desterrua, aberastasunaren eta justiziaren etorrera. Eta askok, hori hitz onekin konponduko dela uste du. Sakonago pentsatzerik ez du nahi. Ez baitu pentsatu nahi ea zergatik den pobrezia eta justiziarik ez hori, zergatik problemak era batera ezin daitezkeen konpon eta beste era batera bai. Hori pentsatu gabe, moldeetan [gizarte egituretan] sartu gabe, kritika egitea eta iritzia ematea, utopian bizitzea da” (Ib., 197). Ongi aztertzen bada, kontua ez dela gobernari baten edo bestearena, ikusiko da. Rikardok “sistemaren determinismoan” sinesten du. “Johnsonek egiten duena besterik ezin lezake, Ameriketako agintariek ezin lezakete besterik egin. Sistemaren morroiak direlako (...). Sistemaren prisionerua dira eta sistemak ezarrita dauzkan mugak gainezkatu ezinezkoak zaizkie” (Ib., 198). Sistema da, hortaz, kritikatu eta apurtu beharra dagoena.

Sistema hori, ordea, Vietnamen bonbardaketak, Ameriketara beltzen diskriminazioa, Hirugarren Munduan gosea eta izurria eragiten dituen, “ordenarik eza den Ordena” hori, berbera da han eta hemen, eta hura borrokatzea guretzat hura hementxe borrokatzea izan behar du. Zein sentido dauka, okerrak han kritikatzek eta haiengatik indignatzeak, eta hemen isil-isilik onartzeak, itxuraz hain eskandalosoak ez direlako bakarrik? Beren muin-muinean ez al dira gauza berbera, sistema bat bera? “Nik ere bizi naizen lekuan pobreziaren eta justizi-ezaren kontra borroka egiten badut eta, gaizki ezarrita baldin badaude, molde berriak jasotzen ahalegintzen baldin banaiz, orduan kritika hori egiteko eskubi-

²⁰ (...) Ideologiarik gabe antikonformistak duen arriskua. Izan ere, bada gure egunean sistematik eta teoriatik ihes eta alde egiteko gogo amorratua. Horregatik badira zenbait gazte ideologia batekin konprometitu nahi ez dutenak, arrisku hori korritu nahi ez dutenak, baina gaurko gizartearekin ados ez daudenak. Horregatik gertatzen da gaur eguneko zenbait gazteren rebeldia snobismo huts batean gelditzea, ez baitu antikonformismoak mamirik gabe sentidurik. Dударik gabe antikonformismoa pauso bat da, baina hurrengo pausoa ematen ez bada sentidurik gabekoa” (HL 94-95; ideia eta kasik hitz berdinak, ik. Ib., 190-191).

dea izango dut. Hango eta hemengo justiziarik ezaren artean lokarri bat dagoelako eta hangoek eta hemengoek errealitate berdinentzat borroka egiten dugulako” (Ib., 198-199). Hori egiten ez dugun bitartean, fariseismoak utzi eta, “gu ere razista!” (Ib., 284).

Ekintzan murgildu, politika egin

Gazteria berrian ez da bilatu behar teoriarik, arkitekturarik. Joerak bai. Pentsamendua bizi-bizi doa, ez dago sistemarik eta leiho itxirik. Rikardorengan berdin. Kontzeptu asko, erreak bezala, bi uhertz kontradiktorio artean mugitzen da gure bistan hara-hona, definizio batean atrapa eta geldiezin. Errealismoa behin etsipena eta kontserbadurismoa besterik ez da²¹, geroxeago kontzientziaren agindu zorrotza. Utopia geure buruaren engainua eta gezurra da orain, snobismo kutsukoa; borrokatu ahal izateko proiektzioa gero, positiboki. Egiaz, kontraesanik ez dago bien artean estriktoki. “Errealismoaren eta utopiaren artean, errealitatearen eta ametsaren artean dialektika bat dago, tentsio bat, ezinegon bat” (Ib., 192). Errealismoa onartu beharra dago, baina –dio Rikardok– “razionalismo bezala” (Ib.), ez oraingo errealitatea aldatu nahi luketenei ukitzen ez uzteko tabu bezala.

Holako bilinboloa politikaren kontzeptua dugu batez ere, – ez, noski, Rikardorentzat berarentzat, baina bai berak norentzat idazten diharduen inguru horrentzat. Batetik politika izentxarturik omen dago arras eta jende askok ez du ezer jakin nahi²²; bestetik biziki erradikaldua dago orduantxe gazteria berrian giroa; hain erradikaldua ere, ordea, batzutan, berriro politikaren ukoan bukatzen baitu erradikalismoak, protesta mugimendu hutsean. Publiko nahas-mahasi horrekin lanean, Rikardoren papera “errealismo” politikoarena da. Esplika dezagun, bada, lehenengo, zer izango den Rikardoren errealismoa.

²¹ “Ez dut ahazten gaur egunean «realismo» hitza erabiltzen duten politikariak resignazioaren politika defenditzen dutenak direla” (HL 95). “Errealitatearen izenean, gauzak besterik izan daitezkeela pentsatzea ere debekatua izango da. Realismoa da kontserbadoreen hitzik maitatuena” (Ib., 242).

²² Eta euskaltzaletasuna ere askotan politika bezala ikusten zen (zikinkeria bezala hortaz). Ik. HL 223, Herriberriko estudiante frantziskotarrei Nafarroan: “Gehienetan zuen artean zenbaitek euskararen alde lan egitea-eta, politika gauza bezala ikusten du. Hain politikoa da euskararen alde lan egitea, euskararen alde lan ez egitea bezala. Orduan egin behar dena, fariseismoak alde batera utzi eta gauzak egiazki esatea da. Euskararen alde lan egiten ez duen euskaldunak edo Euskal Herrian bizi nahi duenak, zergatik ez duen egin nahi esan behar du”.

Errealismo hori, hain zuzen, errealismoaren aurkako errealismoa da, berak oso polito anekdota baten inguruan argitu duen bezala. Hona hemen, berak kontatua:

“Kontserbadore bizkorrek nahi zuten bezala, Frantziak badu lehendakari berri boteretsu bat: Pompidou. Bigarren botu-aldi aurretik, Pompidou Baionan izan zen; eta hemengo kazetetan irakurri dugunez, Patxi Alkortak euskal txapel bat erregalatu omen zion eta hortxe ikusi dugu Pompidouren fotografia txapel bat buruan duelarik. Folklorismo horren komentarioa errazegia denez gero, isil nadin, bestela izango da norbait beti errazera jutzen dugula esango duena.

(...) *Errealistei, «euskaltzale» diren errealistei*, noski, egia hau gogoraraziko nieke, errealismoaz mintzo direnean: *Errealitatearen aldetik ez dugu esperantzarik*, eta argi dago errealista izatearen ondorioz garbiena Ipar Euskal Herrian Pompidouren aldekoa izatea dela” (HL 348).

Rikardorena ez da, beraz, txapelaren errealismoa. Errealismoa gauzak eta problemak erotik hartzea da eta – politika guk geuk egitea, ez besteren batek ari duen politikari atxekitzea; geuk egitea gure iraultza. Vietnamek hain zuzen hori erakusten du, ezer erakustekotan: “herri batek erreboluzioa egiteko bere indarretan kontatu behar duela batez ere eta ez beste herrien esperoan egon” (Ib., 99). Herri batek, berak egin behar du bere politika; ez beste batek egin diezaion egon.

Baina: “gaur egun hitz hau [politika] izan daitekeen prestijiorik gutienekoa da. Gizon gehienen pentsamenduan, politika hitza eta zikinkeria hitza berdina dira, esanahi berdina dute” (Ib. 208)²³. Nondik halako omengaltzea? Arrazoi handi bat psikologikoa da, desengainua, norbere arazoan burubidea politikatik itxaron eta politikoez ez dutela soluzionatzeko ikustean. Gero badago beste arrazoi bat mundu politikoan bertan: politikoa askok, alegia, profesio bat eta bizibide bat eta “botikarioen demagogia” egin duela politika, hau zeharo desprestigiatuz (Ib., 210). Jendeak, ondorioz, politika alfer-alferrikakoa dela, edo –maliziatzago– handik bizi direnentzako dela, pentsatzen du. Rikardok lehenik eta behin aurriritzian kontra lan egin beharko du. “Hezurretaraino sartua daukagu politika alferrekoa dela, politikoa berekoi eta enganatzaile batzuk besterik ez direla, oraingo agintariak txarrak baldin badira

²³ Ik. HL 91: “Politika dena nahaspila bat besterik ez da. Politikan zikinkeria besterik ez dago. Zertarako borrokan egin, azkenean gauzak ez dira aldatuko eta? Zenbat aldiz entzun ote ditugu horrelako hitzak?” (1965).

hurrengoak txarragoak izango direla; hitz baten esateko: politika egitea alferrekoa dela, horregatik hoberena bakoitzak berea egitea dela. – Non egongo ginake gaur, denek berdin pentsatu izan balute? Libertateagatik eta demokraziagatik borroka egingo ahal zuten, horrela pentsaturik? Ez, ez daukagu ukatzerik, demokraziak on asko ekarri digu, ez bizimodu hobeak bakarrik, gizonaren askatasun handiagoa ere bai. Lapurrak beti izango dira, baina gero eta gutiago izatea lor daiteke, eta, batez ere, diren guztiak epaitu eta zigortzea” (Ib., 335-336).

Hauek 1963ko berbak ziren, Rikardo kristau-demokrata gaztearenak (hots, “gazte zahararenak” nolabait). Gero ez da erraza izango Rikardori holako arrazoirik irakurtzea. Beste holakoak baino: “Jeneralean, politika gizarte bateko moldeak aldatu nahi dituztenek egiten dutela sinestarazi nahi dute. Gainontzekoek ez omen dute politikariek egiten. Sinestarazi-nahi honen arrazoiak garbi daude: (...) politika egitea moldeak aldatu nahi izatea baita, nahikoa izango da, politika zikinkeria bat dela-ta, berekioen eginkizun bat dela zabaltzea, ezarritako moldeei iraunerazteko” (RA 90-91). Orain despolitizazioa, ez bakarrik, baina bai batez ere “kontsebadoreen propaganda eta jokabidearen” emaitza da hortaz (HL 210)²⁴.

Tesi guztiz ortodoxo simple bat eman lezakeen hau, ez da hain halakoa. Berezkuntza egitea komeni da politikaren kontzeptuarena, a) ekonomizismoaren aurka, eta b) administrazio soil gisa ulertutako politikaren aurka. (Beharbada gaur biek bat egiten dute!).

a) Politika ez da kudeaketa ekonomikoa: arazo politikoak ez dira “funtsezko” ekonomikoetara (osoki) bihurtzen. XVIII. mendean gero –esplikatzeko du Rikardok– ekonomiak politika baztertu eta bigarren maila batean jartzen du. Ekonomiak, beraren politikarekiko loturatik banatu ezezik, politika deusbaliatu egin nahi du eta honen izatea bera ukatu. Puntu honetan Rikardok berdintzat jotzen ditu sozialismoa eta liberalismoa, Marx bera ez du akats honetatik libre ikusten (Pat 33)²⁵. Halere Rikardok egunero ari duen lanean benetako arazoak hurrengo zentzuan aurkituko ditu:

²⁴ JAKINeko “Ezker berriak” (1967) saioaren hasierako arrazoipideak eta ia hitzak berak aurkitzen dira Argiako “Politika” artikuluan (1966ko maiatza): holako zenbait testu-oharren arabera, ez dirudi bidegabekoa, “soldaduzkako” saio handiak lehendik eginsamartuak edo hein batean prestatuak zeuzkala pentsatzeak.

²⁵ Ekonomiaren gutxiespenik ez du esan nahi honek. Ik. “Azalekoaren eskubideak”, *Jakin* 31-32 (1968) 113: “Bataz beste danok onartzen dugu gizarte baten egoera neurtzeko mamira jo behar dugula eta mamia ekonomian dagoela (...). Azalekoak ere, ordea, errealitate bat dira eta ezin daitezke, ekonomia dela muinekoa eta, baztertu”.

b) Politikan denok dihardugu, “apolitikoak” ez egonik salbu. Politikarik ez egitea ere politika egitea baita: “politika egiteko ez da derrigorrezkoa partidu edo sindikatu batekoa izatea, nahikoa da gizartean bizitzea. Norbait bere gizarteko sistema kondentatu gabe bere baitan bizi bada, sistema horren eusle bihurtzen da” (RA 90). Hau da, gizarteak beti estruktura (molde) batzuk dauzka, eta horiek ala ontzat ala txartzat har daitezke; beraz, aldatu ala utzi egin nahi izan litezke. Hemengoak behatzen baditugu, aisa atzemango dugu, estruktura txit onuragarriak eta ongi ezarriak gutxitxo batzuentzat bakarrik direna, gehien-gehienentzat aldiz una eta hustiagarriak franko. “Politikaren eginkizunik nagusia guztien ona egitea baldin bada, dudarik ez dago horrela jasotako gizartea eta horrela erabakitako estrukturak gaizki daudela, eta berri batzuk jaso behar direla”. Borroka egin behar horretarako: baina gutxi zoriotsu haiei ez zaie menperatuen borroka hori batere komeni. Estruktura haiek aldatu nahi badituzu eta berriak jaso, estruktura horietan beren interesen defentsa daukatenek ez dizute onartuko zure asmoa. Horiek zure xedeari “politika” deituko diote, zikinkeria; eta jendea zikinkeria horretatik atzerazten ahaleginduko dira eginahal guztiekin. Handik hara, askatasuna inportantea izango da sistema horretan –prentsa askatasuna adibidez–, baina gehienen askatasuna gutxi batzuek kontrolatzeko eta manipulatzeko askatasuna izango da de facto: “egunerokoen eta aldizkarien askatasuna, neurri handi batean, gezurrezkoa da kapitalista sistema batean: haiek argitaratzeko, beharrezkoa baita kapitalisten laguntza; kapitalistak, ordea, gutienak dira, eta ez zaie komeni gehienen interesak defenditzen dituzten ideiak, berriak eta sistemak zabaltzea (...). Dirudunek errealitateko bizitza garratz horren truke, ilusiozko bizimodu bat eskaintzen digute: zinean, telebisiotan, aldizkarietan, propagandan erakusten digute bizi-modu berri bat... Morfina bezalaxe da hori” (HL 209-210)²⁶.

Despolitizazioa ez da fenomeno natural bat: produktu fabrikatu bat da. Horrela, politikaren munduan daukagu, politika denok egiten dugula: baina batzuek egin egiten dute eta besteek sufritu; batzuek

²⁶ “Politika da gizartea eta estrukturak behar bezala jasotzeko biderik egokiena; eta, gizartea gaizki baldin badago, lehengoa desegin behar da lehenik, berria jasotzeko. Baina hori ez zaie inola ere komeni kontserbadoreei, dirudun gutiei. Horrela, dituzten medio guztiekin politika desprestijiatu egiten dute, eta politikarako beldurra sartzen saiatzen dira. - Paradoxa dirudien arren, politika ez egitea ere politika egitea da. Izan ere, gizarte bat gaizki egina eta jaso badago, eta gauzak bide onera ekartzen saiatzen ez bagara, oraingoa ona dela aitortzen ari gara eta oraingoak jarrai dezan laguntzen” (HL 210).

kontzientziarekin egiten dute eta gehien-gehiengoak “etsita”, kontzientziarik gabe (RA 91). Gehiengo honi buruz Rikardoren lana politikara deitzea izango da. Politikaren beharra azpimarratzea, politikagintzara animatzea, beldurra kentzea. “Politika, benetakoa jakina, ikasteko modurik hoberena politika egitea da eta politika egunero jarraitzea egunkari eta aldizkariaren bitartez: igari, itsasora edo ibaira salto eginaz ikasten den bezala” (Ib., 339-340). Politikara bultzatzeko Rikardok erabiltzen duen arrazoi bat hau izaten da (kontzientziako printzipio baten eran: Rikardok daukan pertsonaren kontzeptuarekin lotuta dagoena): “eskubide bat duenak, eskatzeko obligazioa du, bereganatzeko ahaleginak egiteko obligazioa du” (Ib., 90). Ez egitea, norbere pertsonatasunaren zati bat, kontzientzia zati bat, zakurrari botatzea da.

Bestela da, kontzientzia politikoa eduki bai, minegia beharbada, baina politikan sartu nahi ez dutenekin halere. Hemen orobat berezi egin behar da berriro (nahiz agian biak ez izan oso bi-bi barnean): badira, bat, idealista etsiak eta, bia, idealista zikinbeldurrak.

Bere Platonen deskribu politikoan, gaurko intelektual “desenkatatu” batzuk eduki dituela gogoan, ematen du. “Politika praktikoarekin, bai herriarenarekin bai aristokratenarekin, erabat desengainatuta geratu da. Horregatik politikaren praxia utzirik, teoriara joko du. Platonen bizitzan eta obran une inportante bat da hau. Egia da, geroago bere pentsamendua Sirakusan betetzen saiatuko dela. Bainan saiakera hauek eta guzti, filosofiara joko du. Ez du ia eguneroko politikagintzan sinismenik izango. Nolabait esan ahal izateko, extremista bihurtuko da. Edo dena edo ezerrez esango du bere jokabidearekin. Dena erdietsi nahian dabilenean, gizonengan –herri guzian edo hauen artean onenetan– sinismena galdurik, behar bezalako gizarte osatu bat filosofari bihurtutako tirano baten bitartez erdietsi nahiko du. Goitik behera filosofari eta pentsalari izango den tirano batek jaso dezakeen gizartea proposatuko du. Eta hori ezinezkoa dela ikusten baldin badu, ez du ezer jakin nahiko eguneroko borroketaz. Bere asmoak ezin bete dituela ikusten duenean pentsamenduan ixten da” (Pat 88-89).

Gizarte berria nahi luketenei, baina eskuak politikan zikindu ez, “*erreboluzioa ere «egin» egin behar da*”, *ironizatzen die Rikardok (HL 288)*. Eta egite hori politika da. Politikagintzaren bat derrigorrezkoa da; beraz, organizazio formaren bat, xedeen zedarri batzuk, xede horiei egokituriko medioen hautapena, etab., halabeharrezkoak dira zerbait egin nahi bada. Aukera egin beharra dago, ez alde batean Ongi dena eta bestean Gaizki dena dagoelako, baizik alde bietan batera egoterik ez dagoelako eta ekintzak ez duelako ametitzen, pentsamenduak hain

gustuko duen ezbaia, indezisia. Hautatu beharra dago alde bat. “Politika egiten dutenek (...), ezarrita dauden moldeekin, gutxienean erabat, ados ez daudelako egiten dute hori. Zerbaitekin ados ez badaude, zerbaitekin hobea egin daitekeela uste dutelako izango da, noski. Eta politika egiten dutenek, berak onaren aldetik daudela uste dutelako izango da, eta besteen moldeak txar eta desagokitzat hartzen dituztelako” (RA 91). Ez da dogmatismoa, baizik errealismo apala. Mugen kontzientzia osoz egindako aukera. “Puntu honetara iristerakoan, beraz, manikeismo kutsuko abiadura batean sartzen gara. Politikan ekilea izateko derrigorrezkoa da zerbaitekin manikeista izatea. Batek, berak defenditzen duena besteari baino hobea dela usteko ez balu, zertarako egingo luke borroka?” (Ib.). Handik aurrera, ez itsutzea, ez uste izatea inoiz arrazoi gutzia berak bakarrik duela, “etengabeko egonezin dialektiko batean bizitzea”, “nahi denaren eta denaren artean dagoen dialektika..., realismoaren eta utopiaren artean dagoena” inoiz ez ahaztea, – eta ekintza-aren sendotasunean ez laztatzea halere, izango da politikako artearen zailtasuna. Irekita egon eta erabakita egon, justiziaren aldea edozein alderditan onartzeko. “Nik ez dakit dominikano errebolutuak zer diren, marxistak ala katolikoak, erreformistak ala erreboluzio-zaleak. Dakidan bakarra da, justiziagatik beren bizia ematen dutela, eta hori aski dut adiskidetzat izateko” (HL 343).

Egiterik ez dagoena, pentsamenduaren zalantzak ekintzarenak bihurtzea da. Dogmatismorik ez, izan ere: baina derrigor bai sinesmen bat, ideia bat (HL 336).

Rikardo “gazte berriaren” hiru aitortza

Gazteria berria defini liteke “lehenengo politikaren molde zaharretan ezin jokaturik, politika arazoetarako bide berrien bila dabilen gazteria” (RA 89). Politikara deitzea ez da, beraz, politika tradizionalera deitzea, eta gutxiago norbere askatasuna abandonatzera diziplinaren baten esku. Askatasuna, kontzientzia bezala, ezin zaio inori gure partez utzi.

Bere arriskuekin leporatu behar du norberak askatasun bizia. Eta arriskua dagoen tokian, erantzukizunak beti ematen du beldurra. Rikardok behin bere beldurra idazle bezala aipatu du: “Andaluziako lurralde beroetan soldadutza egiten ari nintzelarik, halako batean Sartreren *Esku zikinak* izeneko liburua irakurri nuen. Benetan interesgarria, liburu honetan irakurtzen den teatroa. Benetan interesgarria, teatro honen gaia. – Idazlea beti da beldur, bere eskuak zikintzeko” (Ib., 228). Idazlearen beldurrak eskuak zikintzeko era askotakoak dira: euskara txarra

erakustekoa, idazle txarra agertzekoa, etab., edo gaiaren tratamenduan ekibokatzekoa. Idaztea aukeratu duenak, idaztearen arriskuak leporatu ditu. “Libertadeak batez ere arriskua adierazten du, jokabide ona ez hartzeko arriskua. Aukerarik ez badago, ez dago libertaderik; aukera egiterakoan, berriz, desegoki egiteko arriskua daukagu” (Ib., 229).

“Gazteria berria” aukera berri, askatasunaren manifestazio berria da Euskal Herriaren historia modernoan. Bere arriskuekin. Baina egina dagoen, edo egiten oraintxe ari den, aukera da. “Gaurko belaun euskaltzalea erabat industriatutako gizartean bizi da. Euskal langilearen edo burgesaren semea da [ez baserritarrarena]. Bere buruaren giroa eta mundua industriatutako gizarteetan izaten den bezalakoa da. Aurreko euskaltzaleen munduaren kontzepzioak ez dio ezertarako balio. Errealitatearen pixuagatik lehenagokoenak ipuin politak iruditzen zaizkio. Bere kezka eta problematikarentzat ez dute ezer esan nahiko. Euskaldun izatea gero eta zailagoa izango da, ordea. Lehengo esplikazioak ez onartzea ez da izango, hala ere, euskaldun izatea baztertzea” (RA 123).

Zokora beharreko “esplikazioen” artean, politika eta euskaltzaletasun tradizionalen alboan, erlijio tradizionala egongo da.

Rikardoren “gazte berri”tasuna bere hiru aitortza (“aitorketa”) hauetan osorik samar adieraz daitekeela, uste dut:

- “katoliko kritikoa” konfesatzen du bere burua: inportantea zaio transzendentziari garbi eustea (Ib., 81), fedea politikarekin ez nahastea (“kristau-demokrazia”ren kontzeptua desatsegina bilakatu zaio). Fedea ez dela edukitasun bat, pentsatuko du, beti berritu behar den bilaketa baizik (Ib., 114-115). Alderdi pertsonal intimoa azpimarratzen da; ez da ikusten hautu pertsonal guztiz pribatua baino besterik inoiz ba ote den erlijioa.
- “ezker berrikoa” aitortzen du orobat bere burua (Ib., 89), h. d., sozialista iraultzailea, “marxista irekia”, etab.
- “euskaltzalea” (ez “abertzalea”, oker ez banago!): hori bai, euskaltzale erradikala, jakobino eta inperialista izateko ere prest! (Ib., 193; HL 233-234).

Urteak pasa dira harrez gero: zer geratu da “gazteria berri” hartatik?

Rikardoren deia geratu zaigu. Joan Mari Torrealdaik esan zuen bezala²⁷, “gidatzen eta salatzen gaituen ahots hori da” orain ere Rikardo.

²⁷ HL 12, “Irakurleari bi ohar”.